



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko uztailaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko uztailaren bian, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2024ko ekainaren 28

Afitxatze eguna : 2024ko ekainaren 28

1. ERABAKIA: ZERBITZU HERRITAR BATEN EZARTZEA **HERRIKO ETXEAN** (4.4 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio zerbitzu herritarra egiten duten pertsona boluntarioak hartzeaz erabakitzea.

Zerbitzu herritarra Frantziako 2010eko martxoaren 10eko 2010-241 legeak sortu zuen dispositiboa da, zeina 2010-485 dekretuarekin zehaztua baita. Frantziako Zerbitzu Nazionalaren Kodean aipatzen da.

Dispositibo horrek, 16 eta 25 urte arteko gazteei aukera ematen die tokiko erakunde baten alde engaiatzeko eta denbora emateko, baita ere frantziar nazio kohesioa eta gizarte mistotasuna sendotzeko.

Zerbitzu herritarren baitan gauzatzen diren eginkizunek biztanleriaren zerbitzurako proiektu berriak esperimentatzeko edo garatzeko balio behar dute, edo jadanik bidean diren ekintza batzuen indartzeko onuradunen kopuruak biderkatuz, edo erakundeko langileek eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Zerbitzu herritarra eginen duten gazteen hartu ahal izateko, harrera egiturak lau baldintza bete behar ditu:

- 1- Boluntarioek gizartearentzako balioa duten eginkizunak bete behar dituzte, biztanleriaren eta lurraldeen beharrei erantzuteko;
- 2- Boluntarioek langile publikoen ekintza osatu behar dute, ez dituzte langile horiek ordeztu behar;

- 3- Zerbitzu herritar gisa proposatuko diren eginkizunak 16 eta 25 urte arteko gazteei zuzenduak dira eta diplomarik edo kalifikaziorik ez duten gazteak ezin dituzte baztertu.

Ezin zaizkie boluntarioei eskatu lanbide esperientzia berezirik, ez eta gaitasun berezirik. Jarrera eta motibazioa izan behar dira irizpide nagusiak;

- 4- Zerbitzu herritarrari esker, boluntarioek gizarte mistotasun esperientzia bizi behar dute, usaian bizi diren bestelako ingurune batean.

Auzapezak zehaztu du, zerbitzu herritarraren kontratua ez dela lan-kontratua. Hasi aitzin izenpetu behar da, eta honako baldintzak bete behar ditu:

- Asteko lan denborak gutxienez 24 orenkoa izan behar du;
- Zerbitzuaren truke, Frantziako estatuak dio boluntarioari zuzenean ordain sari bat ematen, eta horrek ditu ere gizarte gerizako gastuak bere gain hartzen. Harrera egiturak gazteari beste ordain sari bat ematen dio garraio eta bazkari gastuentzat (Frantziako funtzio publikoko hilabete sariko 244ko indize gordinaren %7,43, hots 114.85 € garbi – 2023ko uztailaren 1eko puntuaren balioa) bankutik bankurako transferentzia bidez.
- Harrera egiturak tutore bat izendatu behar du. Tutorearen ardura izanen da boluntarioa prestatzea eta laguntzea bere eginkizuna bete dezan;
- Harrera egiturak formakuntza herritarra egin behar dio, horretan nahitaez lehen sokorri keinuetarako formakuntza eskainiz.

Auzapezak jakinarazi du, Ipar Euskal Herriko Tokiko Misioak baduela zerbitzu herritarra eskaintzeko egiaztapena, eta boluntario batekin engaiamendu kontratua izenpetu duela.

Boluntarioa Ortzaizeko herriaren eskura utz dezake, 2024ko irailaren 2tik eta 2025eko maiatzaren 31ra, herriko eskola publikoan aritzeko.

Auzapezak Herri Biltzarkideei aurkeztu die, boluntarioa Ortzaize herriaren esku ezartzeko hitzarmen proiektua.

Kontuan izanik dispositibo horrek onurak izan ditzakeela bai herriarentzat baita gaztearentzat ere,

Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, Ortzaizeko herriko etxean zerbitzu herritar dispositiboa ezartzea, eskola arloan arituko den boluntario batentzat 2024ko irailaren 2tik goiti, astean gutxienez 24 oreneko lan denbora batekin,
 - BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, Ipar Euskal Herriko Tokiko Misioarekin eta boluntarioarekin hiruko hitzarmen baten izenpetzeko,
 - BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, administrazio mandatu bidez hilabetean 114.85 €ko ordain saria ordaintzeko gaztearen garraio eta bazkari gastuentzat.
- ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko uztailaren 2an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/07/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/07/05ean.